*Memorias de la Sección y de los Programas*





**JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOA****JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA****SARRERA**

Justizia eta Herri Administrazio Sailari egokituko zaizkion eginkizunak eta jardun-arloak Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuan ezarrita daude. Dekretu hori, bere aldetik, otsailaren 23ko 57/2010 Dekretuak aldatu zuen.

Eginkizun horietan oinarrituta Sailari laguntzeko hiru zuzendaritza horizontal bereiz ditzakegu, hala nola Kabinetea, Komunikazio Zuzendaritza eta Zerbitzu Zuzendaritza; eta lau jardun-arlo nagusi, gaur egungo egitura organikoa osatzen duten hiru sailburuordetzekin bat datozenak, alegia, Justizia, Herri Administrazioa, Funtzio Publikoa eta Araubide Juridikoa.

**KABINETEA**

Kabinetearen Sailburuordetza sortu da laguntzeko, lehenik, sailburuari, betetzen duen karguaren ondorioz dagozkion egitekoak burutu ditzan, eta, bigarrenik, Sailaren gainerako organoei ere, batez ere beste erakundeekiko eta herritarrekiko harremanetan.

Halaber bermatuko du Saileko sailburuordetzen artean koordinazio egokia izan dadin eta Sailaren harremanak, Eusko Legebiltzarrarekikoak nahiz Arartekoarekikoak, bideratuko ditu. Plan estrategikoen prestaketan lankidetzan emango du eta Sailaren zereginean eragina izan dezaten gaiari buruzko informazioa bildu eta helaraziko du.

Sailaren plan estrategikoen eta plan horiei dagozkien jarraipen-txostenen prestaketan lagunduko du, Saileko sailburuordetzekin koordinatuta.

Sailaren eginbeharrekoetan eragina duten gaien inguruko informazio egokia bildu, aztertu eta aurkeztuko du. Horretarako, gaiarekin zerikusia duten Saileko beste organo eskudunekin batera lan egingo du.

**KOMUNIKAZIOA**

Komunikazio Zuzendaritzak bermatuko du Sailaren jarduerak estaldura egokia izan dezaten informazio eta publizitateari dagokienez. Gainera komunikabideekiko harremanetaz arduratuko da, Sailaren komunikazio jarduketak burutuko ditu eta Saileko organoentzat laguntzeko atal gisa jardungo da.

**INTRODUCCIÓN**

La atribución de funciones y áreas de actuación que van a corresponder al Departamento de Justicia y Administración Pública viene establecida por el Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública, modificado a su vez por el Decreto 57/2010, de 23 de febrero.

Sobre la base de dicha atribución funcional, se distinguen tres Direcciones horizontales de apoyo y asistencia al Departamento, como son Gabinete, Comunicación y Servicios y cuatro grandes áreas de actuación: Justicia, Administración Pública, Función Pública y Régimen Jurídico, las cuales son coincidentes con la actual configuración orgánica a nivel de viceconsejerías.

**GABINETE**

La Dirección de Gabinete se constituye con una vocación de apoyo y asistencia, en primer lugar, a la Consejera para el ejercicio de las funciones que tiene encomendadas en virtud de su cargo y, en segundo lugar, a los restantes órganos del Departamento, principalmente, en materias tales como las relaciones con otras Instituciones y con la ciudadanía.

Así mismo, velará por la adecuada coordinación entre las Viceconsejerías del Departamento y canalizará las relaciones del Departamento con el Parlamento Vasco y el Ararteko. Colaborará en la elaboración de los Planes Estratégicos y recopilará y trasladará la información sobre los asuntos que tengan incidencia en el quehacer departamental.

Colaborará en la elaboración de los Planes Estratégicos del departamento y de los informes de seguimiento correspondientes a los mismos, en coordinación con las Viceconsejerías del Departamento.

Recopilará, analizará y trasladará la información pertinente sobre los asuntos que tengan incidencia en el quehacer departamental, requiriendo para ello la colaboración de otros Órganos de Departamento competentes por razón de la materia.

**COMUNICACIÓN**

La Dirección de Comunicación, garantizará la adecuada cobertura informativa y publicitaria de las acciones del Departamento, atenderá las relaciones con los medios de comunicación y realizará las acciones de comunicación del Departamento actuando como unidad de apoyo a los órganos departamentales.

**ZERBITZUAK**

Zuzendaritza hau eratuta dago zuzendaritza horizontala bezala Saileko organo guztiei eremu hauetan zerbitzua emateko: aurrekontuak, langileria, aholkularitza juridikoa, informatika, estatistika, berdintasuna, barne-koordinazioa eta prestakuntza, bai eta idatzien euskararako itzulpena eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren ezarpena ere.

Kontratatzeko organoa da eta bertan atxikitzen da, halaber, Saileko kontratazio mahaietako bat. Zuzendaritza honen eskumenen baitan, aurrekontuen aurreproiektua koordinatu eta prestatuko du, aurrekontu aldaketen izapideak egingo ditu, giza baliabideak eta prestakuntzako plangintzak eta programak kudeatuko ditu, hizkuntza-normalizazioa sustatzen duela. Gainera, irizpen teknikoak eman eta aholkularitza juridikoa egingo du, bai eta zerbitzu informatikoen jarraipen eta kudeaketa ere, eta datu pertsonalak babesteko arauak betetzen direla ziurtatuko du. Informazio estatistikoko beharizanak identifikatuko ditu, Saileko estatistika-plana prestatuko du, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planeko helburuak ezarriko ditu Sailean.

**JUSTIZIA SAILBURUORDETZA****JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA ERABERRITZEKO ZUZENDARITZA**

Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzaren arloan, helburu nagusia da justizia teknologikoki aurreratu bat lortzea eta berrikuntzaren alde lan egitea, justizia bizkorragoa, irisgarriagoa, gardenagoa eta eraginkorragoa bilatuz, hau da, herritarrei zerbitzu hobea emango dien justizia bat bultzatuz.

2008an Informatikaren eta Komunikazio Judizialen IV. Plana onartu ondoren, Justizia Administrazioaren ingurunean teknologia berriak aplikatzeari dagokionez Plan horretan aurreikusitako ekintzak egingo dira 2009an. Halaber, Antolamendu Planaren eta Hizkuntza Normalkuntzarako Planaren ondoriozko ekintzak babestuko dira, eta teknologiak espediente elektronikoko bat izatea ahalbidetu behar duela eta une oro finkatu behar dira dagoeneko egindako aurrerapenak.

Donostiako barruti judizialean hasitako idazkiak eta jakinerazpenak telematika bidez aurkezteko sistemaren esperientzia pilotua bi lerroetatik jarraitu behar da, funtzionalitate berriak gehituz eta beste jurisdikzio eta barruti judizialek hedatuz.

**SERVICIOS**

Esta Dirección se configura como una Dirección horizontal que presta servicio a todos los órganos del Departamento en las áreas de: presupuestos, personal, asesoría jurídica, informática, estadística, igualdad, coordinación interna y formación, así como la traducción al euskera de los escritos y la implementación del Plan de Normalización del Uso del Euskera.

Es órgano de contratación y en ella se adscribe, igualmente, una de las mesas de contratación del Departamento. En el ámbito de sus competencias, ejercerá las funciones de coordinación y elaboración del anteproyecto de presupuestos, realizará la tramitación de las modificaciones presupuestarias, gestionará los recursos humanos y los planes y programas de formación impulsando la normalización lingüística, elaborará los dictámenes técnicos y realizará el asesoramiento jurídico, efectuará el seguimiento y gestión de los servicios informáticos y asegurará el cumplimiento de la normativa de la protección de datos de carácter personal, identificará las necesidades de información estadística, elaborará el Plan de Estadística departamental e implementará en el Departamento los objetivos del Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres.

**VICECONSEJERÍA DE JUSTICIA****DIRECCIÓN PARA LA MODERNIZACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA JUSTICIA**

En el Área de la Dirección de Modernización de la Administración de Justicia el principal objetivo es conseguir una justicia tecnológicamente avanzada, apostando por la innovación en la búsqueda de una justicia ágil, accesible, transparente y eficaz que redunde en un mejor servicio a la ciudadanía.

Tras la aprobación en el año 2008 del IV Plan de Informática y Comunicaciones Judiciales, en el año 2011 se ejecutarán las acciones previstas en el mismo en relación a la aplicación de las nuevas tecnologías en el entorno de la Administración de Justicia, apoyando las acciones derivadas del Plan Organizativo y del Plan de Normalización Lingüística, teniendo en cuenta que la tecnología debe posibilitar la existencia de un expediente Electrónico, consolidando, en cualquier caso, los avances ya realizados.

El inicio de la experiencia piloto del sistema de presentación telemática de escritos y notificaciones en el Partido judicial de Donostia, debe continuar en dos líneas, la integración de nuevas funcionalidades y la extensión a otras jurisdicciones y partidos judiciales.

Funtzionalitate berrien gehikuntza, beste kolektibo, erakunde eta administrazioekiko ezinbesteko elkarrengarritasunarekin burutu behar da, administrazio-antolamendu judizialaren arrazionaltasuna eta emankortasuna, jarduera-adierazle fidagarrien ezarpena eta, alor horretan, profesionalekin eta kanpoko beste sistema batzuekin telekomunikazioen garapena lortzeko. Erreforma prozesalek sinadura elektronikoaren sistemaren ezarpena zabaltzen jarraitzea beharrezko eta ezinbesteko bihurtzen dute, funtzionalitate berriak garatuz eta handituz, indarrean dagoen prozesu-legediarekin lotuta, eta beharrezkoak diren garapen-aldaketekin; barruti judizial guztietan urruneko probak eta eginbideak egiteko bideokonferentzia-sistemak ezartzeko zereginarekin jarraituz; eta judizio-areto guztietan grabaketa integraleko sistema baten garapenari bide emanez.

Espediente judizial elektronikoa beste barruti judizial eta jurisdikzio batzuetara zabaltzea, bestalde, Justizia.net-ek Bizkaiko barruti judizialean izango duen hedapenaren arabera garatuko da.

Horrez gain, Justizia.bat bulego judizial berriaren ezarpenari jarraituko zaio epaitegi eta fiskaltza guztietan eta Justizia.bat horren bigarren fasearen ezarpenari jarraituko zaio, doako laguntza juridikoaren eta fiskaltzaren zerbitzuen informatizazioaren bidez. Nolanahi ere, arreta berezia eskainiko zaio kanpoko beste sistema batzuekiko eta beste justizia-administrazio batzuekiko komunikazioari, hori guztia EJIS Hitzarmenaren barruan dagoela.

Halaber, Interneten zerbitzu sorta zabaltzeko aukeran sakontzen jarraituko da, Justizia.net Web garatuz eta eguneratuz. Era berean, justizia administrazio profesionalen lankidetzeta-foroak sortuko dira.

Beharrezkoa da aldaketaren kudeaketa egokia ezartzea, Justizia eraberritzeko helburuak antolamenduan eta jarduean lortu nahi duen aldaketa errazteko ezinbestekoak diren prestakuntza jarduerekin. Horretarako, etengabeko prestakuntza eta ebaluaketarako bidea izateko aukera ematen duten e-learning plataformako prestakuntza-planak garatuko dira.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin eta Justizia Ministerioaren Justizia Administrazioako Azterlan Juridikoen Zentroarekin izenpetutako hitzarmenen ondorioz, eragile juridikoen kolektibo guztien prestakuntza-jarduerak garatzen jarraituko da. Aurrekoaz gain, koordinazioa bultzatuko da profesionalen beste kolektiboekin, jabetzaren erregistratzaileekin, notarioekin, graduatu sozialekin.

Epailen, fiskalen edo idazkari judizialen kidegoetarako oposaketak prestatzeko laguntzen esparruan, diru-laguntzarako modua aldatuko da prestakuntzarako zentro integratu bat sortuz, notarioen eta erregistratzaileen elkargo profesionalak kudeatutako beste akademia eta zentroekin koordinatuta, Euskadi errotutako profesionalak lortu nahian.

La integración de nuevas funcionalidades, debe llevarse a cabo con la necesaria interoperabilidad con otros colectivos, Entidades y Administraciones, en la búsqueda de la racionalidad y productividad de la organización administrativa judicial, la implantación de indicadores fiables de actividad y el desarrollo de las telecomunicaciones en ese entorno con los profesionales y con otros sistemas externos. Las reformas procesales hacen necesaria e imprescindible la continuación de la extensión de la implantación del sistema de firma electrónica, con el desarrollo y ampliación a nuevas funcionalidades, en conexión con la legislación procesal vigente, y con los necesarios cambios evolutivos; continuando con la implantación en todos los partidos judiciales de sistemas de videoconferencia para la realización de pruebas y diligencias remotas; y posibilitando el desarrollo de un sistema de grabación integral en todas las salas de vistas.

La extensión a otros partidos judiciales y Jurisdicciones del expediente judicial electrónico se desarrollará en función del despliegue de Justizia.bat. en los Partidos Judiciales de Bizkaia.

Además, se continuará la implantación de Justizia.bat nueva oficina judicial en todos los Juzgados y Fiscalías y se continuará con la implantación de la segunda fase de Justizia.bat con la informatización del servicio de asistencia jurídica gratuita y Fiscalía, prestándose especial atención a la intercomunicación con otros sistemas externos y con otras administraciones de justicia, todo ello dentro del Convenio EJIS.

Asimismo, se seguirá ahondando en la ampliación de la gama de servicios en Internet mediante el desarrollo y actualización de la Web Justizia.net.. De igual forma se crearán foros cooperativos de profesionales de la administración de justicia.

Se hace necesario implantar una gestión del cambio adecuada, con las necesarias actividades de formación que faciliten el cambio organizativo y operativo que pretende el objetivo de la modernización de la Justicia. Para ello se desarrollarán los planes de formación en plataforma e-learning que permitan un canal de formación y evaluación continua.

Se continuará el desarrollo de las actividades de formación de los distintos colectivos de operadores jurídicos, fruto de los Convenios suscritos con el Consejo General del Poder Judicial, con el Centro de Estudios Jurídicos de la Administración de Justicia del Ministerio de Justicia. Además de lo anterior se potenciará la coordinación con otros Colectivos de profesionales, Registradores de la propiedad, Notarios, Graduados Sociales.

En el ámbito de las ayudas a la preparación de oposiciones a los cuerpos de judicatura, fiscales, o secretarios judiciales, se modificará la línea subvencional a través de la creación de un centro integrado de preparación, en coordinación con otras Academias y centros gestionados por los Colegios profesionales de Notarios y Registradores, buscando la consecución de profesionales radicados en Euskadi.

2011. urtean zehar Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan hizkuntza normaltzeko prozesua arautzen duen Dekretu berritik eratorritako neurriak aplikatzen jarraituko da; 2008. urtean onartutako Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Planean aurreikusitako ekintzak betearaziko dira eta Justizia Administrazioaren zerbitzu publikoan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak adostuko dira gainerako erakundeekin. Horretarako, erabilera-plan berriak ezarriko dira epaitegi, zerbitzu erkide eta bake epaitegietan, aurreko esperientziak finkatuz eta bi hizkuntza ofizialetan lan egiten duten funtzionarioentzat trebatzaileek egiten duten lanarekin jarraituz. Halaber, hizkuntza-normalkuntzaren arloan garatutako materialak eta lanak zabalduko dira eta normalkuntza dokumentalerako eta lengoaia juridikoaren normalkuntzarako programak areagotuko dira lege-testu elebidunen produkzioaren bidez, Euskadiko unibertsitateekin lankidetzan.

Hizkuntza Normalkuntzarako Planari jarraiki, euskalduntze-programekin eta prestakuntza-ikastaroekin jarraituko da. Programa eta ikastaro horiek barnetegiekin eta ikastaro trinkoekin osatuko dira. Gainera, hizkuntza-trebetasunerako banakako planak landuko dira.

Euskara juridiko profesionalaren erabilera bultzatuko da baita glosategi terminologiko bateratu baten sorrera ere.

Bake epaitegietan inforeg.4 aplikagarria ezartzeari jarraituko zaio, euskal herritarrek erregistro-inskripzioak EAEko edozein hizkuntza ofizialetan egiteko dituzten eskubideak betetzeko aukera emanaz. Informatizazio-prozesuarekin jarraituko da baita erregistro-liburuak digitalizatzeko prozesuarekin ere, herritarrek erregistro-informazioa errazago bilatu eta jaso dezaten, bide telematikoen bitartez eta hori MJU eta ENZNrekin koordinatuta.

Epaiketa barruko eta kanpoko bitartekotza, adiskidetzeari edo arbitrajea sustatzeko koordinazio-jarduerak bultzatuko dira, gatazkak judizioz kanpoko ebazteko baliabide gisa, teknologia berrien erabilera bultzatuz.

Egoitza Judizialen Plana funtsean amaitu ondoren, 2011. urtean, bulego judizialaren erreformarako eraikinak prestatzen jarraitzeaz gain, lehentasuna emango zaio Bizkaian eraikinak erosteari, egun dagoen bulego judizialen asetahun-egoera konpontzeko eta etorkizunean eman daitekeen horien zabalkuntza errazteko. Bigarren maila batean, azpimarratu behar dira honako hauek: Getxoko Justizia Jauregiaren berrikuntza eta zabalkuntzarako lanen jarraipena, Aramaioko Adingabeen Zentroaren birgaikuntza-lanen amaiera eta Bergarako Justizia Jauregiaren birgaikuntzarekin lotutako jarduerak.

Durante el año 2011 se continuará la implantación de las medidas derivadas del nuevo Decreto regulador del proceso de normalización lingüística de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euskadi; se ejecutarán las acciones previstas en el Plan de Normalización de la Administración de Justicia, aprobado en el año 2008 y se consensuará con el resto de instituciones medidas tendentes a garantizar los derechos lingüísticos de los ciudadanos en el servicio público de la Administración de Justicia, implantando nuevos planes de uso en Juzgados, Servicios Comunes y Juzgados de Paz, afianzando las experiencias anteriores y continuando con la labor de apoyo que llevan a cabo los trebatzaileak para el funcionariado que trabaja en ambas lenguas oficiales. También se difundirán los materiales y trabajos desarrollados en materia de normalización lingüística, intensificándose los programas de normalización documental y del lenguaje jurídico, entre otros medios, a través de la producción de textos legales bilingües en colaboración con las Universidades de Euskadi.

En concordancia con el correspondiente Plan de Normalización Lingüística, proseguirán los programas de euskaldunización y los cursos de formación, que se complementarán con estancias en internados y cursos intensivos, así como la elaboración de planes individualizados de capacitación lingüística.

Se potenciará el uso del euskera jurídico profesional, así como la creación de un glosario terminológico unificado.

Se continuará la implantación del aplicativo inforeg.4 en los Juzgados de paz, posibilitando el cumplimiento de los derechos de la ciudadanía vasca a realizar las inscripciones registrales en cualquiera de los idiomas oficiales de la CAPV. Se continuará con el proceso de informatización así como el proceso de digitalización de los libros registrales, posibilitando una mejora en el acceso y obtención de la información registral por parte de la ciudadanía, a través de canales telemáticos, todo ello en coordinación con el MJU y la DGRN.

Se potenciarán las actuaciones de coordinación para el fomento de la mediación intra y extra judicial, la conciliación o el arbitraje, como medios de resolución extrajudicial de conflictos, fomentando el uso de las nuevas tecnologías.

Finalizado en su núcleo esencial el Plan de Sedes Judiciales, en el año 2011 además de continuar la preparación de las edificaciones para acoger la reforma de la oficina judicial, la prioridad se centra en la adquisición de edificaciones en Bizkaia al objeto de resolver la actual saturación de las dependencias judiciales y posibilitar futuras ampliaciones de las mismas. En un segundo plano, cabe destacar la continuación de la obra de reforma y ampliación del Palacio de Justicia de Getxo, la finalización de la rehabilitación del Centro de Menores de Aramaio y las actuaciones ligadas a la rehabilitación del Palacio de Justicia de Bergara.



Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzarekin lankidetzan, Euskadiko epaile, fiskal eta auzitegiak idazkariekiko koordinazioa sustatuko da Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Batzorde Mistoaren, Fiskaltza eta Eusko Jaurlaritzaren Batzorde Mistoaren eta Eusko Jaurlaritzaren eta Idazkaritza Judizialaren arteko Lankidetzaren bileren bitartez.

Segurtasun eta osasun gaitan, Prebentzio eta laneko arriskuen Zerbitzuarekin koordinatuta lan egingo da, Justizia Administrazioaren arloko segurtasun eta osasunerako batzordeekin bilerak eginez, alor horretako sindikatuen eta BJJFren arteko komunikazioa eta lankidetzaren bultzatuz.

### **BULEGO JUDIZIAL ETA FISKALAREN ZUZENDARITZA**

Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritza aurre egiten die Bulego Judizial eta Fiskal berriaren ezarpenarekin nahiz Justizia Administrazioaren zerbitzura transferitutako giza baliabideen kudeaketarekin lotutako jarduketari.

Bulego Judizial Berria (BJB) ezartzeari dagokionez, Euskadiko Justizia Administrazioan Bulego Judizialaren eta Fiskalaren Antolamendu Plana aplikatzeari jarraituko zaio eta, zehazki, 2011. urtean Bulego Judizial Berriaren ezarpena finkatuko da Amurrio, Azpeitia, Bergara, Eibar, Getxo, Irun eta Tolosan eta BJBa Balmaseda, Durango, Gernika eta Gasteizen ezarriko da. Hori guztia, Justizia eta Herri Administrazio Sailak bai barruti judizialen Zerbitzu Prozesal Erkideak diseinatu, sortu eta antolatzeke bai Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetza eta Laguntza Judizialeko kidegoetan Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen eginkizun eta zereginak definitzeko duen eskumena betez.

Bulego judizialerako antolamendu-eredu berriaren ezarpena honako faktore hauek gauzatzen da funtsean: administrazioa modernizatzeko eta justizia-administrazioaren zerbitzuen kalitatea kontrolatzeko teknikak sartzeko, zerbitzu komunitario oinarritutako administrazio-antolamendu judizialean elementu kudeatzaileak erabiltzeko, euskalduntzea eta funtzionamenduaren, ebaluazioaren eta hobekuntzaren adierazleak sartzeko. Ekintza horiek guztiak prozesu kudeaketa egokia eta justiziaren zerbitzu publiko hobea lortzera bideratuta daude.

Antolamendu-berrikuntza errazteko, aldaketa behar bezala kudeatzea sustatuko da eta lau jardueren-lerroetan oinarrituta egongo da: BJB organoen bilerak; prestakuntza; komunikazioa; eta Bulego Judizial Berriaren kalitate-kudeaketa.

Artxibo judizialei dagokienez, artxibo hauen garbiketa-lana bultzatuko da baita balio historiko eta dokumentala duten artxibo kudeaketa ere, Kultura Sailarekin lankidetzaren bitartez.

En colaboración con la Dirección de Oficina Judicial y Fiscal se fomentará la coordinación con la Judicatura, la Fiscalía y el Secretariado Judicial en Euskadi a través de las reuniones de la Comisión Mixta del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco y el Gobierno Vasco, de la Comisión Mixta de la Fiscalía y el Gobierno Vasco y del Órgano de Colaboración entre el Secretariado Judicial y el Gobierno Vasco.

En materia de seguridad y salud se trabajará en coordinación con el Servicio de Prevención y riesgos laborales, en reuniones con los Comités de Seguridad y Salud en el ámbito de la Administración de Justicia, potenciándose la comunicación y la colaboración con las centrales sindicales en este ámbito y la DOJF.

### **DIRECCIÓN DE LA OFICINA JUDICIAL Y FISCAL**

La Dirección Oficina Judicial y Fiscal aborda aquellas actuaciones relacionadas con la implantación de la nueva Oficina Judicial y Fiscal y la gestión de los recursos humanos transferidos al servicio de la Administración de Justicia.

En el marco de la implantación de la Nueva Oficina Judicial (NOJ), se continuará con la aplicación del Plan Organizativo para las Oficinas Judiciales y Fiscales de la Administración de Justicia en Euskadi, y, en concreto, en 2011 se consolidará la implantación de la Nueva Oficina Judicial en Amurrio, Azpeitia, Bergara, Eibar, Getxo, Irun y Tolosa y se implantará la NOJ en Balmaseda, Durango, Gernika y en Vitoria-Gasteiz, en el ejercicio de la competencia del Departamento de Justicia y Administración Pública en el diseño, creación y organización de los Servicios Comunes Procesales de los Partidos judiciales y en la definición de las funciones y tareas del personal al servicio de la Administración de Justicia en el Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa, de Tramitación Procesal y Administrativa, y de Auxilio Judicial.

La implantación de un nuevo modelo organizativo para la oficina judicial se concreta fundamentalmente en varios ejes: la incorporación de técnicas de modernización administrativa y control de calidad de los servicios de la administración de justicia, el empleo de elementos gerenciales en la organización administrativa judicial basada en servicios comunes, la euskaldunización de sus integrantes, y la introducción de indicadores de funcionamiento, evaluación y mejora. Todas estas acciones van encaminadas a lograr una adecuada gestión de los procesos y un mejor servicio público de la justicia.

Para favorecer la reforma organizativa se promoverá una adecuada gestión del cambio, centrada en torno a cuatro líneas de actuación: las reuniones de los órganos NOJ; la formación; la comunicación; y la gestión de la calidad en la Nueva Oficina Judicial.

Con relación a los archivos judiciales, se impulsará la actividad de expurgo de estos archivos, así como la gestión de los archivos considerados de valor histórico-documental, en estrecha colaboración con el Departamento de Cultura.

Erregistro Zibilaren arloan, lanaren antolamendu eta banaketa berria sustatuko dira, Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzarekin lankidetzan.

Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeak, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarekin sinatutako hitzarmenaren bidez, auzitegiko medikuen prestakuntza bereziarekin eta espezializazio-prozesua burutu duten sendagileekiko mediku-kontsultekin jarraitu da, hori guztia kanpoko instantziekiko ikerketak eta ikerketa-hitzarmenak garatuz osatu da. Halaber, Justizia Ministerioarekin izenpetutako hitzarmenaren bitartez prestakuntza-jarduerekin jarraituko da Toxikologia Institutu Nazionalan.

Justizia Ministerioaren Justizia Administrazioako Azterlan Juridikoen Zentroarekin izenpetutako hitzarmenaren ondorioz, prestakuntza-jarduerak garatzen jarraituko da, auzitegiko medikuen prestakuntzari dagokionez.

Justizia Administrazioako langileen kudeaketari dagokionez, garrantzi berezia du "Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako funtzionarioak euskal Administrazio Orokorreko funtzionarioekin nola parekatu arautzeko eta Bulego Judizial eta Fiskala ezartzeko IV. Akordioa" gauzatu dela, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren eta Justizia Administrazioako esparruko sindikatu guztien artean (CCOO, ELA, CSI-CSIF, LAB, UGT) sinatutakoa.

Negoiazio kolektiboari dagokionez, oraindik negoziatu gabe dauden gaiak garatzeari ekingo zaio, hala nola, oporrak, lizentziak eta baimenak, lekualdatze-lehiaketak, atxikipenak, zerbitzu-eginkizunak, akoplamendu-prozedura, hizkuntzagatiko berariazko lehiaketak, kudeatzaile-arduradunen lanpostuen zerbitzu-eginkizunetan betetzea, EPE eta lekualdatze-lehiaketen bidez bete beharreko plaza etab.

2011ko ekitaldian lanpostuen balorazioa hasiko da eta, horrek, lanpostu bakoitzaren monografiak egitea ekarriko du baita Justizia Administrazioako berariazko baloraziorako gida-liburua ere, aldeztu aurretik sindikatuekin negoziatuta egongo dena, hain zuzen.

Justizia Administrazioako kidegoetan sartzeko Ministerioaren 2009ko deialdiari dagozkion ikastaro hautakor eta praktikoa antolatuko dira txanda orokorraren bidez nahiz barne sustapenaren bitartez.

Kolektibo txikiak direnez gero, auzitegiko medikuen eta psikologoaren prestakuntza baita teknikoak diren lan-kontratuko langileena ere batez ere beste erakunde batzuekiko hitzarmenaren bitartez kudeatuko da eta zenbait arlotan esperientzia hartzeko berariazko prestakuntzarekin jarraituko da.

On-line prestakuntza-sistema baten oinarrituta, zenbait gaien ikastaro eta jarduerak euskaraz antolatzea bultzatuko da.

En el área de Registro Civil se fomentará una nueva organización y distribución del trabajo, en colaboración con la Dirección de Modernización de Justicia.

En el Instituto Vasco de Medicina Legal se continuará la formación especializada de los médicos forenses mediante el Convenio suscrito con el Servicio Vasco de Salud-Osakidetza, así como la articulación de consultas médicas especializadas con los médicos que hayan finalizado su proceso de expertización, completándose con el desarrollo de estudios y convenios de investigación con otras entidades. Asimismo se continuará con las actividades de formación en el Instituto Nacional de Toxicología, a través del convenio suscrito con el Ministerio de Justicia.

Continuará el desarrollo de las actividades de formación, fruto del Convenio suscrito con el Centro de Estudios Jurídicos de la Administración de Justicia del Ministerio de Justicia en relación con la formación de Médicos Forenses.

En materia de gestión de personal al servicio de la Administración de Justicia, tiene especial importancia la ejecución del "IV Acuerdo Regulador de la Equiparación del Personal Funcionario al servicio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euskadi con el personal funcionario de la Administración General Vasca y de Implantación de la Oficina Judicial y Fiscal" firmado entre el Departamento de Justicia y Administración Pública y todas las Organizaciones Sindicales del ámbito sectorial de la Administración de Justicia ( CCOO, ELA, CSI/CSIF, LAB, UGT).

En materia de negociación colectiva se abordará el desarrollo de asuntos pendientes de negociar tales como vacaciones, licencias y permisos, concursos de traslados, adscripciones, comisiones de servicios, procedimiento de acoplamiento, concursos específicos por razón del idioma, provisión en comisión de servicios de los puestos de gestores responsables, plazas a proveer por OPE y por concursos de traslados, etc.

En el ejercicio 2011 se iniciará la valoración de puestos de trabajo, lo que exigirá la elaboración de monografías de cada puesto, así como el manual de valoración específico de la Administración de Justicia, negociado previamente con las Centrales Sindicales.

Se organizarán los cursos selectivos-prácticos correspondientes a la convocatoria ministerial de 2009 para el acceso a los diferentes cuerpos de la Administración de Justicia, tanto por el turno general como por promoción interna.

La formación de Médicos-Forenses y psicólogos, así como del personal laboral eminentemente técnico y por tratarse de colectivos muy reducidos, se gestionará principalmente a través de convenios con otras instituciones, continuándose con la formación específica para la expertización en diversas áreas.

Se potenciará la organización de cursos y actividades de distintas materias en euskera basados en un sistema autoformativo on-line.

Laneko arriskuen prebentzioaren barruan, Prebentzio Zerbitzua sustatuko da, sortzeko Dekretuan aurreikusitako beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide materialekin hornituz eta prestatutako Prebentzio Plana edukiekin beteko da. Pertsona gehien biltzen duten 6 justizia jauregietan segurtasun sistema kardiologikoak jarriko dira Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Auzitegiko Medikuntzako erakundeetan dagoeneko zeuden 4 "desfibriladore erdiautomatikoak" hartzeko eta Bilboko eta Getxo jauregietan beste 2 sistema berriak ipintzeko. Prebentzio-jarduna eraginkorra izan dadin eman diren prozedurak prestatu, berraztertu eta aldatzeko jarraituko zaio baita horietatik eratorritako gainontzeko dokumentuak ere. Desfibriladore erdiautomatikoak erabiliz, bihotz biriketako oinarriko bizkortzeko buruzko ikastaroak emango dira.

Osasunaren Zaintzaren barruan, DBPekin lan egiten duten Justizia Administrazioako langile guztiei mediku azterketa oftalmologikoak egiteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko AMEEko langile guztiei berariazko mediku-azterketa egiteko proposamena egingo da. Horrez gain, hasierako mediku-azterketak egiten ahaleginak egingo dira, batez ere berariazko arriskuen aurrean daudenei, AMEEko langileak bezalaxe. Lipoatrofia kasuak direla eta, elektrostatika-azterketa egingo zaie dagozkien lanpostuei Prebentzio Zerbitzuak erosi duen tresna berriarekin eta kasuen eta proposatutako prebentzio-neurrien jarraipena egingo da.

## JUSTIZIA ZUZENDARITZA

Justizia Zuzendaritza. Gazte Justizia funtsezko zeregina da oraindik ere eta Zerbitzu honen erantzuna dagoen eskarira egokitu nahi da. 2011 urtean Gazte Justiziaren 2008-2012 aldirako Plana betearazpen fasean egongo da. Atal honetan nabarmendu behar dira adingabeokoa barnetegiratzeko plazak gehitzeko beharrezana eta foru-aldundiekiko koordinazio-ahalegina.

Adingabeoen eremu honetan garrantzitsua da justizia jauregietara ikastetxeek eginiko bisitaldi gidatuen egitaraua garatzea baita ikasleentzako nahiz irakasleentzako mintzaldiak Adingabearen Legeari buruz ere.

Justiziarekiko lankidetzaz-zerbitzuei dagokienez, epaile eta epaitegiei laguntzeko zereginaren barruan, bitartekaritza-zerbitzuen zabalkundea aipatu behar da, hala beste jurisdikzio batzuetara nola beste barruti judizial batzuetara, eta horrek zerbitzuaren eskaintza ziurtatzen du EAEko biztanle guztientzat.

Zuzendaritzak jarduera zabalagoa garatuko du espetxez besteko neurrien arloan, hala nola, gizartearentzako lanak eta tratu txarren egileen tratamendua. Hain zuzen ere, tratu txarren egileen tratamendurako Gakoa programak dirulaguntza jaso du arrakasta handiz eta, horregatik, 2011 urtean Zerbitzu horri laguntza ematen jarraitu nahi da.

Dentro de la prevención de riesgos laborales se potenciará el Servicio de Prevención dotándolo de los medios personales y materiales previstos en el Decreto de creación y se dará contenido al Plan de Prevención realizado. Se dotará a los 6 Palacios de Justicia de mayor concurrencia de personas de sistemas de seguridad cardiológico para albergar los 4 "Desfibriladores Semiautomáticos" que ya había en los Institutos de Medicina Legal de Vitoria-Gasteiz, Bilbao, Barakaldo y Donostia-San Sebastián y poner otros 2 sistemas nuevos en los Palacios de Bilbao y Getxo. Se continuará con la elaboración, revisión y modificación de procedimientos dictados para la efectividad de la actuación preventiva, así como del resto de documentos derivados de los mismos. Se impartirán cursos de Reanimación cardiopulmonar básica con manejo de desfibriladores semiautomáticos.

Dentro de la Vigilancia de la Salud se propondrá la realización de reconocimientos médicos oftalmológicos a todo el personal de la Administración de Justicia que esté expuesto a trabajos con PVDs y los reconocimientos específicos periódicos a todos los trabajadores de IVML de la Comunidad Autónoma Vasca. Además se intentará la realización de reconocimientos iniciales en especial a los expuestos a riesgos específicos cómo son los trabajadores de los IVML. En relación con los casos de lipoatrofia, se realizará el estudio de electrostática con el nuevo aparato que se ha adquirido para el Servicio de Prevención de los puestos de trabajo implicados y se hará un seguimiento de los casos y de las medidas preventivas propuestas.

## DIRECCIÓN DE JUSTICIA

Dirección de Justicia. La Justicia Juvenil sigue siendo tarea primordial, con el fin de adecuar la respuesta de este Servicio a la demanda existente. En el 2011 se estará ejecutando el Plan de Justicia Juvenil 2008-2012. Hay que destacar en este apartado la necesidad de incrementar las plazas de internamiento para menores y el esfuerzo de coordinación con las Diputaciones Forales.

En este ámbito de los menores es importante el desarrollo del programa de visitas guiadas de los Centros Educativos a los Palacios de Justicia, así como las charlas sobre la Ley del Menor tanto para el alumnado como para el profesorado.

En cuanto al apartado de Servicios de Cooperación con la Justicia, dentro de la función de auxilio a jueces y Tribunales cabe señalar la extensión de los Servicios de Mediación, tanto a otras jurisdicciones como a otros partidos judiciales, lo que garantiza una prestación del Servicio para todos los usuarios de la CAPV.

Se desarrollará una mayor actuación de la Dirección en relación con las medidas alternativas a la prisión, como los Trabajos en Beneficio de la Comunidad y el tratamiento a maltratadores. Concretamente se ha subvencionado el programa Gakoa de tratamiento a maltratadores con notable éxito y se pretende por ello continuar apoyando este Servicio en el año 2011.

Gai horri lotuta, askatasuna gabetzeko zigorren betearazpena dago. Eremu honi dagokionez, ekintza-plan bateratuak prestatuko dira inplikaturik dauden beste sail eta erakunde batzuekin, espetxetik irteten diren pertsonen laguntzarako eta integrazioarako, laneratzeko eta gizarteratzeko plan bat garatuz.

Justiziaren Lankidetzaren arloari dagokionez, bereziki garrantzitsua da urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeak eta 210/1996 Dekretuak araututako Doako Laguntza Juridikoaren kudeaketa eta finantzazioa. Doako justiziako dekretu berria indarrean sartzeak, gainera, gastuaren kontrol eraginkorragoa eta zerbitzu horren eskaintza segurtatzea ekarriko ditu. Horrela, emakumeen aldeko lehenetsunezko jardura gisa, etxeko indarkeriaren, genero indarkeriaren eta sexu erasoen arloko laguntza juridikoak eta ofiziozko txandak, emakumeak babesteko erakunde arteko protokoloen esparruan, aurrekontu ahalegin handi bat egin beharra ekarriko du.

Legelarien prestakuntzak, bestalde, aurreko urteetan finkatutako jardura batzuekin jarraituko du, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Praktika Juridikoko Eskolei emandako laguntza ekonomikoekin, abokatu gisa askatasun osoz jardun nahi duten Zuzenbidean Lizentziatuei prestakuntza-ikastaroak ematean sortutako gastuak ordaintzen laguntzeko.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru espetxeetan preso dauden presoek emandako lege-laguntzagatik abokatuen elkargoei diru-laguntza ematen jarraituko da.

2011. urtean, Sailaren jardura areagotuko da ofiziozko txandetan inskribatutako elkargokideen nahitaezko prestakuntzari dagokionez.

## GIZA ESKUBIDEEN ZUZENDARITZA

Giza Eskubideen Zuzendaritza. Giza eskubideen politika horren lantresna nagusia Bizikidetasun Demokratikorako eta Indarkeriaren Deslegitimaziorako Plana (2010/2011) da. Plan horrek Bakearen eta Giza Eskubideen alderako Hezkuntzako Euskal Plana (2008-2011) ordeztu du, eta bi printzipio gidari berri txertatzen ditu irmoki: erakunde demokratikoen aldarrikapena eta biktimen zentraltasuna. Printzipio horiek Giza Eskubideen Zuzendaritzan garatuko diren ekintza guztietan txertatuko dira, aurretik aipatu ditugun lerro estrategikoen bidez, bai eta gai horri buruzko azterlan eta txostenen bidez ere.

Aurrekontuaren zati handi bat, ia ehuneko berrogeita hamarra, nagusiki bi dirulaguntza-lerrotara bideratuko da: alde batetik, bakearen eta oro har giza eskubideen alde lan egiten duten Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-antolakunde eta udalerrietara, eta, bestetik, bizikidetasun demokratikoaren eta, bereziki, indarkeriaren deslegitimazioaren alde lan egiten dutenetara.

Vinculado a esta cuestión se encuentra la ejecución de penas privativas de libertad. Respecto a este ámbito se van a abordar Planes de acción conjunta con otros Departamentos e Instituciones implicadas para la atención e integración social de las personas excarceladas mediante el desarrollo de un plan de reinserción socio-laboral.

En cuanto al ámbito de la Cooperación de la Justicia, especial atención merece la gestión y financiación de la Asistencia Jurídica Gratuita, regulada por la Ley 1/1996, de 10 de enero y el Decreto 210/1996. La entrada en vigor de un nuevo Decreto de Justicia Gratuita va a suponer un control más eficiente del gasto y el aseguramiento de la prestación de este servicio. Así la atención a la asistencia jurídica y turno de oficio en materia de Violencia Doméstica, Violencia de Género y Agresiones sexuales, como actividad prioritaria a favor de las mujeres, en el marco de los Protocolos Interinstitucionales de protección de las mujeres supone un importante esfuerzo presupuestario.

La formación de los y las letradas mantienen actividades ya consolidadas en años anteriores, como es el caso de las ayudas económicas a las Escuelas de Práctica Jurídica existentes en la Comunidad Autónoma del País Vasco, al objeto de colaborar en los gastos que se producen, al impartir cursos de formación dirigidos a Licenciados/as en Derecho cuya idea sea ejercer libremente la profesión de abogado.

Igualmente, se continúa con la subvención a los Colegios de Abogados por la asistencia legal a las personas presas en los tres centros penitenciarios de la Comunidad Autónoma.

Durante el 2011 se intensificará la acción del Departamento en relación con la formación obligatoria de las colegiadas y los colegiados inscritos en los Turnos de Oficio.

## DIRECCIÓN DE DERECHOS HUMANOS

La Dirección de Derechos Humanos. El instrumento principal de esta política de Derechos Humanos es el Plan de Convivencia Democrática y Deslegitimación de la violencia 2010/2011, que ha sustituido al Plan Vasco de educación para la Paz y los Derechos Humanos 2008/2011, y que integra de forma decidida dos nuevos principios rectores: la reivindicación de las instituciones democráticas y la centralidad de las víctimas, principios que serán integrados en las diferentes acciones que se desarrollan en la Dirección de Derechos Humanos, a través de las líneas estratégicas ya apuntadas, además de estudios e informes sobre la materia.

Una parte importante del presupuesto, casi el cincuenta por ciento, se destinará fundamentalmente a dos líneas subvencionales, dirigidas a organizaciones sociales y municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi que trabajen a favor de la Paz y los Derechos Humanos de forma general, y a favor de la convivencia democrática y la deslegitimación de la violencia, en particular.

Zuzendaritzaren beste jarduera batzuk, bestalde, giza eskubideen arloko prestigio aitortuko unibertsitate eta erakundeekin izenpetutako lankidetzak-hitzarmenen arloan garatzen dira. 2011. urtean, "defendatzaile" programa bultzatuko da, giza eskubideen defendatzaile mehatxatuak babesteko eta aldi batean hartzeko programa.

Giza Eskubideen Zuzendaritzak memoria historikoaren politika publikoa garatuko du, eta bere ekintzak bultzatuko ditu, Memoria Historikoari buruzko 5/2007 Legearen garapenari laguntzeko, eta arlo horretako jarduerak egiten dituzten erakunde, izakunde eta/edo antolakundeekin lankidetzan, batik bat dirulaguntza-programaren bidez.

Frankismoaren biktimetako kalte-ordainaren eremuaren barruan, Amnistia Legearen xede diren kasuengatik askatasun-gabezia jasan zutenak konpentsatzeko espedienteak berrikusten, kudeatzen eta ebazten dira.

Giza Eskubideen Zuzendaritzak motibazio politikoengatik giza eskubideen urraketa jasan duten biktimen inguruan egin duen txostenaren ondorioz, beharrezko izango da gai hori aintzat hartzea, Eusko Legebiltzarrak horri buruz erabaki ditzakeen jarduera eta gomendioekin jarraitzeko.

## **HERRI ADMINISTRAZIO SAILBURUORDETZA**

Herri Administrazio Sailburuordetzak, oro har, esleitura dauka Administrazioa arrazionalizatu, hobetu eta modernizateri buruzko politika zehaztea eta finkatzea, eta, halaber, helburutzat herritarrekiko harremana duten proiektuei dagozkienak ezartzea.

Hauetaz ere arduratuko da: Administrazioaren eraikin eta egoitzei buruzko politikak; normalizazio- eta homologazio-egitekoez; hainbat sailtako eraikin eta zerbitzuen kudeaketaz; artxibo-sistemaz, eta argitaratze-jardueraz.

Orobat, informazio-sistema, telefonia, azpiegiturak eta sareen zerbitzu edo telekomunikazioen alorrean Autonomia Erkidegoko Administrazioak dituen eskumenen ondorioz sortutako araubide orokorrak zuzentzea eta ikuskatzea ere organo horri dagozkie.

Herri Administrazioiko Sailburuordetza lau zuzendaritzatan banatzen da, eta ondoren, 2011rako dituzten helburuak azalduko ditugu.

### **INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA**

Telekomunikazioen arloan, jarduketan helburua izango da bermatzea irratik bidezko telekomunikazioen euskarri-zerbitzuak ematea honako jardueren bitartez:

Otras actuaciones de la Dirección se desarrollan en un marco de convenios de colaboración con universidades y entidades de reconocido prestigio en temas de Derechos Humanos. En el año 2011 se impulsará el programa "defensores", programa de protección y acogida temporal a defensores de derechos humanos amenazados.

La Dirección de Derechos Humanos va a desarrollar la política pública de Memoria Histórica, impulsando acciones propias, que coadyuven al desarrollo de la Ley de Memoria Histórica 5/2007, y la colaboración con instituciones, entidades y/u organizaciones que realicen actividades en esta materia, principalmente a través del programa subvencional.

Dentro del ámbito de la reparación a las víctimas del franquismo, se realiza la revisión, gestión y resolución de expedientes para la compensación a quienes sufrieron privación de libertad por supuestos objeto de la Ley de Amnistía.

A resultas del informe elaborado por la Dirección de Derechos Humanos en relación a las víctimas de vulneración de derechos humanos de motivación política, se hará necesaria la consideración de esta materia para continuar la actuación y recomendaciones que a tal efecto pueda considerar el Parlamento Vasco.

## **VICECONSEJERÍA DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

La Viceconsejería de Administración Pública tiene encomendada, con carácter general la determinación concreta de la política sobre la racionalización, mejora y modernización de la Administración y los proyectos que tengan por finalidad la relación con la ciudadanía.

Se ocupa, asimismo, de la política sobre sedes y edificios administrativos, así como de las tareas de normalización y homologación y de la gestión de los servicios y edificios multidepartamentales, del sistema de archivos y de la actividad editorial.

Del mismo modo, se ocupa de los regímenes generales derivados de las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de sistemas de información, telefonía, infraestructuras y servicios de redes o telecomunicación son dirigidos y supervisados por este órgano.

Cuatro son las direcciones en las que se subdivide la Viceconsejería de Administración Pública cuyos objetivos de cara al 2011 pasamos a describir.

### **DIRECCIÓN DE INFORMÁTICA Y TELECOMUNICACIONES**

En el área de las telecomunicaciones, las actuaciones tendrán como fin la garantía en la prestación de servicios soporte de telecomunicaciones vía radio, a través de las siguientes actuaciones:

Irratia eta telebista garraiatu eta hedatzeko sarearen mantentze-lana.

- Banda zabalaren hedapena zabaltzea, bereziki landa-udalerrietan, lurraldearen %100era iristen den arte.
- LTDaren kanal altuak abandonatzeko programa pilotua, ondorengo zatitze digitaleko prozesua modu arinago batean hasteko.
- Euskadiko telekomunikazio-azpiegituren mapa zerbitzuan jartzea.
- Sarearen kudeaketako sistema mantentzea.
- TETRA sarearen hedapena, tuneletan estaldura iristeko eta burdinbide-beharrizanei zerbitzu emateko.

Informatika arloan jarraipena emango zaio Eusko Jaurlaritzako aplikazioen euskarrirako sistemak eta azpiegiturak hobetzea, sistemen ustiapena eta ingeniari-tza, eta proiektu komunak garapen, ezarpen eta bilakaera helburu dituen edozein jarduketari. Aldi berean, Sailburuordetza honen eraginpeko gainontzeko zuzendaritzekin batera informatikari, zerbitzu elektronikoei eta telekomunikazioei buruzko estrategia berri bat zehaztuko da:

- Azpiegitura teknikoa e-Administraziorako. Bertsio berrien bilakaera.
- Langileria kudeaketako sistemen bilakaerari laguntzea, errezeta elektronikoa eta kudeaketa ekonomiko-finantzario-aurrekontukoa.
- Dokumentu-kudeaketaren bilakaera.
- Garapen teknikoak, Herritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea erabat bete arte.
- Nortasunen Kudeaketa: SSO (Single-Sing-On) mantentzea.
- Negozioaren jarraikortasun-planaren ezarpenarekin jarraitzea.
- Zerbitzariak eta lanpostuak birtualizatzea.
- Eusko Jaurlaritzako estandar teknologikoen bilakaerari buruzko azterketa.
- Estandar-dokumentu berri bat zerbitzuan jartzea, software librean ordezko irtenbideak erantsiko dituen.

Eusko Jaurlaritzaren Komunikazioen Sare Korporatibo Administrazio boko komunikazioei dagokionez, Jaurlaritzaren Komunikazioen Sare Korporatibo Administrazioan komunikazioko sistema integratu baten ezarpena lortu nahi da, honako jardute-ildo hauek bultzatuz:

Mantenimiento de la red de transporte y difusión de radio y televisión.

- Extensión del despliegue de banda ancha, especialmente en los municipios rurales, hasta llegar al 100 % del territorio.
- Piloto de abandono de los canales altos de la TDT para iniciar de manera más ágil el proceso de dividendo digital posterior.
- Puesta en servicio del mapa de infraestructuras de las telecomunicaciones de Euskadi.
- Mantenimiento del sistema de gestión de red.
- Despliegue de Red TETRA para alcanzar cobertura en los túneles y dar servicio a necesidades ferroviarias.

En el ámbito informático, continuarán aquellas actuaciones que tengan como fin la mejora de los sistemas e infraestructuras para el soporte de las aplicaciones del Gobierno Vasco, explotación e ingeniería de sistemas y desarrollo, implantación y evolución de los proyectos comunes, al tiempo que se define una nueva estrategia de informática, servicios electrónicos y telecomunicaciones, conjuntamente con el resto de las direcciones dependientes de esta consejería:

